



**Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako
2017ko Foru Programazioa**

JARRAIPEN TXOSTENA
2017
(2018-04-18)





AURKIBIDEA

SARRERA.....	5
1.- BERDINTASUNERAKO 2017KO FORU PROGRAMAZIOAREN JARRAIPENA.....	9
1.1.- PROGRAMAZIOAREN BETETZE MAILAREN IKUSPEGI OROKORRA	9
1.2.- FORU PROGRAMAZIOEN ARABERAKO BETETZE MAILA.....	11
1.3.- DEPARTAMENTUEN ARABERAKO BETETZE MAILA	15
1.4.- ZUZENDARITZEN ARABERAKO BETETZE MAILA	23
1.5.- PROGRAMATU ETA HASI EZ DIREN EKINTZEN BALORAZIOA.....	28
1.5.1.- Ekintza hauek ez hasteko zergatiak	
2.- 2017KO JARDUERA ESANGURATSUENAK.....	33
2.1.- DEPARTAMENTU GUZTIEN JARDUERA KOMUNAK.....	33
2.1.1.- Foru kontratu eta diru-laguntzetan berdintasunerako klausulen txertatzea	
2.1.2.- “AURRE!” Emakumeen aurkako Indarkeria gainditzeko Foru Plana eta Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Plana martxan jartzea	
2.1.3.- Berdintasunerako 2017/18/19 Foru Planifikazioa	
2.2.- BERDINTASUNERAKO ORGANOAREN BERARIAZKO JARDUERAK	36
2.2.1.- Esparru orokorrak: gobernu ona eta emakumeen ahalduntzea	
2.2.2.- Emakumeen aurkako Indarkeria gainditzeko I. Foru Plana	
2.2.3.- Kontziliazio Erantzunkiderako I Foru Plana	
3.- ERABILITAKO AURREKONTUEN BALIABIDEAK.....	42
3.1.- DEPARTAMENTUKA.....	43



4.- 2017KO BALORAZIOA.....	46
4.1.- JARRAIPENAREN BALORAZIOA.....	46
4.2.- 2017KO PROGRAMAZIOAREN BETETZE MAILA.....	46
4.3.- DEPARTAMENTUEN JARDUERA ESANGURATSUAK.....	48
4.4.- LANEKO TALDE, BILERA ETA PROZESUEN BALORAZIOA.....	49



SARRERA

Urteroko jarraipen txosten hau, Gipuzkoako Foru Aldundiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak sortu du **foru departamentuek bidalitako datuekin**. 2017 urtean indarrean zeuden berdintasunerako foru planen baitan, Gipuzkoako Foru Aldundiak martxan jarritako ekintzen laburpena eta balio-analisia jasotzen du, bai kuantitatiboa eta baita kualitatiboa ere:

- *Aurre! Foru Plana*, emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako berariazko foru plana.
- *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Plana*, kontziliazio erantzunkidearen aldeko berariazko foru plana.
- *Esparru Orokorra*, non, *Berdintasunerako II Foru Planetik* eratorritako baina aipatutako berariazko bi planetan txertatu ez ziren ekintzak jasotzen diren.

Zentzu honetan, txosten honi hasiera emateko, 2016 eta 2017 urteetan berdintasun foru planetan legealdi honetako lehentasunen arabera egindako **aldaketa eta moldaketak** laburtuko dira:

- Alde batetik, berdintasun politikei dagokienez, berdintasunerako foru plan bakarra izatetik hiru foru plan izatera pasa da. Hau da, berdintasunerako plan orokor bat izatetik, berariazko bi plan (bata emakumeek jasaten duten indarkeriaren kontrakoa eta bestea kontziliazio erantzunkidearen aldekoa) eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako aspektu orokorrak jasotzen dituen beste plan bat (prozedura administratiboei buruzkoak eta emakumeen ahalduztzearen ingurukoak) izatera.
- Bestalde, kudeaketaren ikuspuntutik, berdintasunerako programazioa prestatu eta honen jarraipena egiteko tresna espezifikoak izatetik foru kudeaketarako bi tresna komun izatera pasa da. Hau da, azken urteetan erabilitako Excel fitxategietatik *EBA-Emaitzei Bideratutako Aurrekontuak* eta *MIDENET* aplikazio berriak erabiltzera pasa da.
- Azkenik, eta aurretik aipatutako bi aldaketak martxan jarri ostean, 2017an zehar foru koordinazio egituran moldaketa prestatu eta hasi da. Hau dela eta, emakumeen eta gizonen berdintasunerako berariazko koordinazio egiturak foru departamentuen koordinaketa orokorrerako eta departamentu-artekorako sortutako koordinazio egitura berrietan txertatu dira.

Aipatutako aldaketa eta moldaketa hauek medio, **2017ko berdintasunerako programazioa hiru une ezberdinetan gauzatu zen**, eduki ezberdinekin eta hiru tresna ezberdinak erabiliz:

- 2017ko *EBA-Emaitzei Bideratutako Aurrekontuak* aplikazioa 2016an bete zen, aplikazio hau guztiz bukatu gabe zegoelarik. Gainera, 2016ko une hartan, edukiak *Berdintasunerako II Foru Planetik* zetozen eta aplikazioan txertatuak izan ziren baina ez era guztiz egokian. Adibidez, berdintasunerako plana ez zegoen behar bezala erlazionatuta edota lotuta aurrekontuekin. Horregatik ez da planifikazioaren fase hau kontuan hartu jarraipen txosten hau egiteko.
- *Aurre! Foru Plana* onartu ostean, 2017 hasieran, plangintza bat gauzatu zen, bakarrik bere ekintzena, hurrengo hiru urteetarako. Plangintza hau inplementazioa egitea zegokien Zuzendaritzaren pertsonalarekin burutu zen.



- Azkenik, *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Plana* onartu ostean, 2017 erdialdean, *Esparru Orokorreko* berregituraketa egin zen, bertan aipatutako bi planetan txertatu gabeko *Berdintasunerako II Foru Planaren* ekintzak bilduz, eta bi foru plan berriekin batera, berdintasunerako 2017-2019 denboraldiko planifikazioa prestatuz.

Hau dela eta, zuzendaritza bakoitzaren jarraipen tresnan **lau atal edo zati jaso dira, lau programazio hauek eta hauetako bakoitzaren jarraipena:**

- 2017ko *EBA-Emaitzei Bideratutako Aurrekontuak*, *Berdintasunerako II Foru Planeko* neurri katalogoa erabiliz, 2016an 2017ko aurrekontuak egiterakoan, departamentuek berdintasunerako prestatutako programazioko ekintzekin.
- *Aurre! Foru Plana*, departamentuek plan hau onartu zenean eta 2017/18/19 *Berdintasunerako Plangintza* egin zutenean foru plan honetan programatutako ekintzekin.
- *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Plana*, departamentuek 2017/18/19 *Berdintasunerako Plangintza* egin zutenean foru plan honetan programatutako ekintzekin.
- *Esparru Orokorra*, departamentuek 2017/18/19 *Berdintasunerako Plangintza* egin zutenean foru planifikazio honetan programatutako ekintzekin.

Hala ere, lau jarraipen hauetako bakoitzaren datuak aztertu ondoren, **urteko laburpen txosten honetan soilik azken hiru jarraipenen datuak jasotzea erabaki da, indarrean dauden berdintasunerako hiru foru planenak hain zuzen ere, EBA-Emaitzetara Bideratutako Aurrekontuak** aplikazioaren 2017ko jarraipenaren datuak ondoko arrazoiengatik alboratuz:

- Jadanik esan den moduan, *EBA-2017ko* programazio hau 2016an egin zen, aplikazio hau guztiz bukatuta ez zegoenean. Esaterako, *Berdintasunerako II Foru Plana* ez zegoen modu guztiz egokian jasota eta ez zegoen diru-partidekin informatikoki ondo lotuta.
- Bestalde, *EBA-2017ko* programazioan jasotako ekintzak *Berdintasunerako II Foru Planaren* neurriak garatzeko ekintzak ziren eta, ondorioz, ezin dira zuzenean alderatu edota parekatu orain indarrean dauden berdintasunerako hiru foru planen ekintza berriekin. Hau da, nahastu behar ez diren ekintza ezberdinak dira.
- Ekintzen kopuruen batura ere ezin zen besterik gabe egin. Zeren eta, besterik gabe batuz gero, emaitzak desitxuratu eta ulermena zailtzen dituzten errepikapenak gertatzen dira. Hau da, ekintza batzuk bi bider kontatzen direla eta ezinezkoa dela errepikapen hauek ondo definitzea eta bereiztea, zeren eta, ekintza berri batzuk lehengo ekintzen jarraipena dira, baina modu oso diferenteetan eta moldaketa, ñabardura eta berridazketa anitzak dituzte. Hau da, *EBA-2017* aplikazioan eta hiru foru planen batean, banandu ezineko hainbat ekintzen zenbaketaren errepikapena saihestu da.
- Azkenik, datozen urteetako jarraipena aipatu diren hiru foru planekin (*Aurre!*, *Kontziliazio Erantzunkidea* eta *Eremu Orokorra*) prestatu den 2017/18/19 Planifikazioaren arabera egingo denez, 2017ko datuekin konparatu ahal izateko, urte honetako jarraipena datozen bi urteetan egingo den helburu eta ekintza berberekin egiteak zentzu gehiago duelako.

Testuinguru honetan, **emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2017ko foru programazioaren jarraipena** departamentu bakoitzaren aldetik bikoitza izan da, ohikoa den bezala:



- Kuantitatiboa: hemen jasotzen dira 2017rako programatuta zeuden ekintzen garapena eta zein aurrekontu erabili den, hasitako, bukatutako eta bukatu gabeko ekintzak bereiziz, eta baita ere hasi gabeko programatutako ekintzak eta zergatik ez diren hasi.
- Kualitatiboa: hemen jasotzen da berdintasuneko egituretan parte hartzen duten pertsonen balorazioa berdintasunerako taldeen funtzionamendua eta lan prozeduren inguruan, eta baita ere foru departamentu bakoitzak garatutako ekintza esanguratsuenen gaineko balorazioa.

Jarraipen kuantitatiboa egiteko, jarraipen orokorra egiteko MIDENET tresna moldaketa fasean zegoenez, departamentu bakoitzari behin behineko tresna bat eskuratu zaio. Lan tresna horretan, zuzendaritza bakoitzak 2017rako programatuta zituen ekintza guztiak aurkitu ditu, taula bat osatuz, non, programatutako ekintza bakoitzari buruz datu hauek bete dituen:

- Bukatua.
- Hasia baina bukatu gabea.
- Erabilitako aurrekontua.
- Hasi gabea.
- Zergatik ez da hasi.

Departamentu bakoitzeko **jarraipen kualitatiboa** egiteko, erantzun libreko hainbat galdera biltzen zituen galdetegia bidali zitzaien berdintasunerako egituretan, bai maila politikoan eta bai maila teknikoan, parte hartzen duten departamentu bakoitzeko pertsonen. Galdera hauek erantzunez, departamentuek arlo hauek baloratu dituzte:

- Lan taldeak, lan bilerak eta lan prozesuak.
- Beraien ekintza garrantzitsu eta esanguratsuenak.
- Iradokizunak eta hobetzeko proposamenak.
- Berdintasunerako klausulak txertatu dituzten kontratu eta diru laguntzarik garrantzitsuenak.
- Txertatu dituzten berdintasunerako klausularik esanguratsuenak.

Txosten honen egitura dela eta, lehenik eta behin, **2017ko Berdintasunerako Foru Programazioaren garapenaren analisia** egiten da. Atal honetan programaturiko ekintzen betetze maila jasotzen da, ondorengo ikuspegi hauetatik hain zuzen ere:

- Betetze mailaren ikuspegi orokorra.
- 2017ko foru programazioen arabera.
- Departamentuen arabera.
- Zuzendaritzen arabera.

Bigarrenik, 2017ko **jarduera esanguratsuenen** balorazio-laburpen bat jasotzen da, bi azpiatal hauetan antolatua:



- Foru departamentu guztien jarduera komunak.
- Berdintasunerako Organoaren jarduera propioak.

Hirugarren atalean, 2017ko berdintasunerako programazioaren garapenerako **erabili diren departamentuen aurrekontuen baliabideak** biltzen dira, bai ikuspegi orokorretik eta bai departamentu bakoitzaren ikuspegitik.

Laugarren eta azken atalean, **ondorio esanguratsuenak** biltzen dira, nahiz ikuspegi kualitatibo nahiz kuantitatibotik. Horretaz gain, 2017ko esperientziaren eta berdintasunerako egituren funtzionamenduaren balorazioa egiten da, eta 2018rako hobekuntza proposamenak planteatzen dira.

Ondorio hauek bi oinarri dituzte, batetik, 2017ko programazioaren jarraipenean ikusitako betetze maila eta, bestetik, berdintasunerako foru talde eta egituretan parte hartze zuzena izan duten pertsonen balorazioak.



1.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO 2017KO FORU PROGRAMAZIOAREN JARRAIPENA

Atal honetan azaltzen den analisiak 2017an zehar hiru foru planen gauzatzearen markopean burututako lana ezagutzeko aukera ematen du, hau da, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Plangintza* ezagutzekoa. Informazioa Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuek *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoari* emandako datuetatik atera da.

Sarreran aipatutako urteko bi uneetan foru departamentuek egindako programaketaren datuen arabera, **197 ekintza programatu ziren guztira**.

197 ekintza hauek **zortzi foru departamentuek, Diputatu Nagusiaren Arloak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak** programatuak izan ziren. Eta bere jarraipena hamar departamentu hauek burutu dute. *Berdintasunerako Organoa, Diputatu Nagusiaren Arloaren* baitan badago ere, eta horregatik bere datuak departamentu honen barruan jaso balitezke ere, aurreko urteetan bezala, bere datuak bereizita jasotzea erabaki da. Arrazoi nagusia bere ekintzen kopurua, berariazotasuna eta eragina da, eta baita ere gipuzkoar gizartearen eta GFA beraren traktore eta bultzatzaile funtzioaren transzendentzia.

Txostenaren atal honetan era deskriptiboan azaltzen dira 2017rako programatutako ekintzen betetze mailari dagozkion datu kuantitatibo nagusiak.

- 2017ko programazioaren betetze mailaren ikuspegi orokorra.
- Berdintasunerako foru programazioen arabera betetze maila.
- Departamentuen arabera betetze maila.
- Zuzendaritzen arabera betetze maila.


1.1.- 2017KO PROGRAMAZIOAREN BETETZE MAILAREN IKUSPEGI OROKORRA

1.1.1.- 2017rako programatutako ekintzen betetze-maila:


2017an zehar, emakumeen eta gizonen berdintasunerako **197 ekintza programatu ziren**.

Hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala, aurreikusitako neurri horietatik:

- **173 ekintza landu dira**. Hauetatik, 142 bukatu dira eta 31 garatzen jarraitzen ari dira.
- 21 ekintza hasi gabe geratu dira. Bestalde, 3 ekintzari buruz ez da informaziorik jaso.



Zenbateko hauek ehunekoetan jarriz gero:



- **Programatutako ekintzen %88a landu da.**
- Programatutako ekintzen %72a hasi eta bukatu egin da.
- Programatutako ekintzen %16a hasi da eta garatzen jarraituko du.
- Programatutako ekintzen %11a ez da hasi.
- Programatutako ekintzen %1aren inguruan ez da jarraipen informaziorik jaso.



Programatutako eta gauzatutako ekintzen inguruko zenbaki hauek azken urteetako jarraipenen txostenetan jasotakoekin alderatzen baditugu, hau da, departamentuek aurreko urteetan emandako datuekin konparatzen baditugu, igoera nabarmena antzeman daiteke bai programatutako eta bai garatutako ekintzen zenbatekoari dagokionez eta baita ere, proportzio berean, bukatutako ekintzei dagokienez.

EKINTZAK	Programatutakoak	Martxan jarriak		Bukatutakoak	Garatzen
2017 jarraipena	197	173	88%	142	31
2016 jarraipena	149	100	67%	84	16
2015 jarraipena	172	116	67%	82	34
2014 jarraipena	235	178	76%	119	59
2013 jarraipena	177	143	81%	115	28

Alde batetik, aipatzekoa da kontutan izan behar dela 2016 eta 2017 urteetan berdintasunerako foru planetan gauzatutako berregituraketa dela eta, ez dela posible zuzenean alderatzea berregituraketa egin aurreko ekintzak ondoren definitutakoekin, izan ere ez baitira ekintza berberak. Hau da, **2017ko jarraipena ekintza berrien gainean gauzatu da**, aurrekoei jarraipena ematen badiete ere, ez dira ekintza berberak.


Sarreran aipatu den moduan, aldaketa egon da departamentu bakoitzak *Berdintasunerako II Foru Planean* jasotako neurriak garatzeko programatzen zituen ekintzetatik, *Aurre! Foru Planean*, *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Planean* eta *Esparru Orokorrean (II Planetik)* datozen eta bereziki prozedura administratibo komunei eta emakumeen ahalduntzeari dagozkien helburuak) definitu eta ezarritako helburuak lortzeko jasotako ekintzetara. Hau dela eta, **aldaketa honen aurretiko eta ondorengo ekintzak ez dira berberak ezta beraien artean guztiz parekagarriak ere.**

Bestalde, 2017ko jarraipenean detektatutako aurrekontuen gauzatzearen igoerak erlazioa du baita ere programazio eta jarraipen prozesuko honako faktoreekin. **Programazioaren jarraipenean eta departamentu guztiek emandako datuen bilketan eman den hobekuntza nabarmena izan da.** Izan ere, aurreko urteetan, maiz departamentu batzuen jarraipen datuak falta izan dira.

Dena den, datuek azken urteen tendentziarekiko inbertsio nabarmena ikustarazten dute. Halaber, igoera esanguratsua programatutako, garatutako eta bukatutako ekintza kopuruan, bai zifra absolutuetan eta bai ehunekoetan ere.

1.2.- 2017KO BETETZE MAILA FORU PROGRAMAZIOEN ARABERA

Ondoko grafikoan ikus daitezke programatutako, hasi eta bukatutako, martxan (hasi eta bukatu gabeko), hasi gabeko eta jarraipen informaziorik gabeko ekintzen kopurua 2017an berdintasunerako garatutako hiru foru programazioen arabera bananduta:




- **Aurre! Foru Plana:** programatutako 57 ekintzetatik, **42 landu dira**, hauetariko 21 bukatu dira eta 21ek martxan jarraitzen dute.
- **Kontziliazio Erantzunkidearen Foru Plana:** programatutako 17 ekintzetatik, **15 landu dira**, hauetariko 14 bukatu dira eta 1ek martxan jarraitzen du.
- **Eremu Orokorra:** programatutako 123 ekintzetatik, **116 landu dira**, hauetariko 107 bukatu dira eta 9k martxan jarraitzen dute.

Ikus daitekeenez, *Eremu Orokorrak* programazioak beste biek baino ekintza kopuru handiagoa programatu ditu eta, logikoa denez, ondorioz, landutako ekintza kopuru handiagoa ere bai. Hau ulergarria da, ondoko arrazoiengatik:

- *Aurre!* eta *Kontziliazio Erantzunkiderako* foru planak 2016 eta 2017an onartu ziren eta, ondorioz, hasierako fasean daude, bereziki *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Plana*. *Eremu Orokorra*, berriz, neurri batean 2013tik garatzen ari zen *Berdintasunerako II Foru Planaren* jarraipena dela esan daiteke eta, horrexegatik, aurreko urteetako esperientzia eta inertiaren bultzada izan du.
- Bestalde, nahiz eta bi foru plan berriek ia departamentuen ardurakoak izan, emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurkako eta kontziliazio erantzunkideren aldeko berariazko planak direnez, beraien ekintzek bi arlo hauetan eskumenak dituzten departamentuei eragin handiagoa eragiten diete eta gutxiago beste foru departamentuei. *Eremu Orokorreko* ekintzek, berriz, foru departamentu guztiei berdinean eragiten diete eta, ondorioz, ekintza berak departamentu guztiei eragiten die eta departamentu guztietan zenbatzen da (adibidez, kontratu eta diru laguntzetan berdintasunerako klausulen txertaketa).

Ondoko grafikoetan aipatu diren lau programazioetan eman diren **ekintzen ehunekoak** ikus daitezke: hasi eta bukatutakoak, martxan daudenak (2017an hasi baina bukatu ez direnak), hasi gabe geratu diren ekintza programatuak eta jarraipen informazioa jaso ez diren ekintzak.

AURRE 2017ko betetze-maila




Aurre! Foru Plana: 42 ekintza landu dira, programatu ziren ekintzen %74a, ekintzen %37a hasi eta bukatuak eta %37a hasi eta bukatu gabeak (martxan).

Ikus daitekeenez, alde batetik, programatutako ekintzen hiru laurden landu dira. Foru plan hau indarrean egon den lehendabiziko urtea izan dela kontuan harturik, betetze maila nahiko altua dela esan daiteke.

Bestalde, ehuneko berbera ikusten da hasi eta bukatu diren ekintzen eta martxan (hasita eta bukatu gabe) dauden ekintzen kasuetan, eta gainera foru plan hau (2017ko programazioaren zati hau) da martxan dauden ekintzen ehuneko altuena duena. Hau ulargarria da foru planen honen hainbat ekintzen konplexutasuna eta eragina kontuan harturik, ekintza hauek ekintza puntualak ez direlako, baizik eta denboran zehar mantenu beharreko jarduerak eta prozesuak direlako.


KONTZILIAZIOA 2017ko betetze-maila



Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Plana: 15 ekintza landu dira, programatu ziren ekintzen %88a, ekintzen %82a hasi eta bukatuak eta %6a hasi baina bukatu gabeak (martxan).

Ikus daitekeenez, alde batetik, programatutako hamar ekintzetatik ia-ia bederatzi landu dira eta hori betetze maila oso altua da. Hala ere, 2017an onartutako foru plana izanik, logikoki, plan hau ekintza gutxien programatuta zituen programazio zatia edo foru plana dela kontuan eduki behar da. Hau da, ehuneko altu hau programatutako 17 ekintzei aplikatu behar zaiela eta ez, programazioaren beste bi zatietan bezala, ekintza kopuru askoz handiago batzuei.

Bestalde, hasi eta bukatu diren ekintzen ehuneko altua ere azpimarratzeko modukoa da. Honen azalpena honako hau izan daiteke: programazio hau foru plana onartu zenean egin zen, 2017ko erdi aldera, eta, ondorioz, betetzeko benetako aukerak kontuan harturik, ekintza puntualei eman zitzaizen lehentasuna, denboran jarraipen gehiago eskatzen dituzten ekintzak datozen urteetarako utziz.



Eremu Orokorra: 116 ekintza landu dira, programatu ziren ekintzen %94a, ekintzen %87a hasi eta bukatuak eta %7a hasi baina bukatu gabeak (martxan).


Ikus daitekeenez, alde batetik, programatutako hamar ekintzetatik bederatzi eta erdi landu dira. Hau betetze maila oso handia da, gainera programatutako ekintza kopuru handienari aplikatu behar zaiola kontuan harturik.

Bestalde, ekintza hasi eta bukatutakoen ehunekoa ere oso altua dela ikus daiteke (hamar ekintzetatik ia bederatzi). Ehuneko altu honek zera erakusten du: eremu orokorreko ekintzak, bereziki departamentu guztientzat komunak diren administrazioako prozedurekin lotutako ekintzak, foru departamentu guztietan nahiko barneratuta eta sistematizatuta daudela.




1.3.- DEPARTAMENTUEN ARABERAKO BETETZE MAILA

Ondorengo grafikoek departamentu bakoitzaren 2017rako programatuta zituen ekintzen betetze maila adierazten dute.





2017ko betetze-maila departamentuka (II)



- **Bide Azpiegiturak:** programatutako 16 ekintzetatik, **16 ekintza landu** eta bukatu dira.
- **Diputatu Nagusiaren Arloa:** programatutako 25 ekintzetatik, **20 ekintza landu dira**, horietatik 16 hasi eta bukatuak eta 4 martxan (hasi eta bukatu gabeak).
- **Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka:** programatutako 13 ekintzetatik, **12 ekintza landu dira**, horietatik 7 hasi eta bukatuak eta 5 martxan (hasi eta bukatu gabeak).
- **Gizarte Politika:** programatutako 23 ekintzetatik, **18 ekintza landu dira**, horietatik 12 hasi eta bukatuak eta 6 martxan (hasi eta bukatu gabeak).
- **Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioa:** programatutako 34 ekintzetatik, **32 ekintza landu** eta bukatu dira.
- **Ingurumena eta Obra Hidraulikoak:** programatutako 8 ekintzetatik, **7 ekintza landu dira**, horietatik 6 hasi eta bukatuak eta 1 martxan (hasi eta bukatu gabea).
- **Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirolak:** programatutako 20 ekintzetatik, **19 ekintza landu dira**, horietatik 12 hasi eta bukatuak eta 7 martxan (hasi eta bukatu gabeak).
- **Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa:** programatutako 6 ekintzetatik, **4 ekintza landu dira**, horietatik 2 hasi eta bukatuak eta 2 martxan (hasi eta bukatu gabeak).
- **Ogasuna eta Finantzak:** programatutako 16 ekintzetatik, **16 ekintza landu** eta bukatu dira.



- **Berdintasunerako Organoa:** programatutako 36 ekintzetatik, **29 ekintza landu dira**, horietatik 23 hasi eta bukatuak eta 6 martxan (hasi eta bukatu gabeak).

Ikus daitekeenez, alde handia dago departamentu batetik bestera bai programatutako ekintzen kopuruan eta bai bukatuta, martxan edota hasi gabeko ekintzen kopuruetan.

Datu hauek, jakina, departamentu bakoitzean baloratu behar dira, 2017rako programatutako ekintza zehatzak aztertuz, **departamentu ezberdinek programatutako eta landutako ekintzak ez direlako zuzenean parekagarriak**. Ekintza batzuen konplexutasuna, garapena eta eragina ezin dira beste batzuenekin parekatu ezta alderatu ere eta, ondorioz, ezin daitezke besterik gabe eta sinpleki ekintzen kopuruak edota ehunekoak elkarren artean alderatu.

Aurreko paragrafoan esandakoa ahaztu gabe, informazioa laburtu eta ordenatze aldera, ondoko taulak departamentu bakoitzak landu dituen ekintzen datuak jasotzen ditu (hasi eta bukatutako ekintzak eta martxan dauden ekintzak, hasi eta bukatu gabeak), bai kopurua eta bai 2017rako programatutako ekintzekiko ehunekoak jasoz.

2017KO PROGRAMAZIOAREN BETETZE MAILA DEPARTAMENTUKA	Programatutako ekintzak	LANDUTAKO EKINTZAK Bukatuak + Martxan	
BIDE AZPIEGITURAK	16	16	%100
DIPUTATU NAGUSIAREN ARLOA	25	20	%80
EKONOMIA SUSTAPENA, LANDA INGURUNEA ETA LURRALDE OREKA	13	12	%92
GIZARTE POLITIKA	23	18	%78
GOBERNANTZA ETA GIZARTEAREKIKO KOMUNIKAZIOA	34	32	%94
INGURUMENA ETA OBRA HIDRAULIKOAK	8	7	%88
KULTURA, TURISMO, GAZTERIA ETA KIROAK	20	19	%95
MUGIKORTASUNA ETA LURRALDE ANTOLAKETA	6	4	%67
OGASUNA ETA FINANTZAK	16	16	%100



2017KO PROGRAMAZIOAREN BETETZE MAILA DEPARTAMENTUKA	Programatutako ekintzak	LANDUTAKO EKINTZAK Bukatuak + Martxan	
BERDINTASUNERAKO ORGANOA	36	29	%81
GUZTIRA	197	173	%88


Ikus daitekeenez:

- **5 departamentuk beren programazioaren %92a baino gehiago landu dute**, hau da, programatutako hamar ekintzetatik bederatzi ekintza baino gehiago.
- **Beste 3 departamentuk bere programazioaren %80a baino gehiago landu dute**, hau da, programatutako hamar ekintzetatik zortzi ekintza baino gehiago.
- **Beste 2 departamentuk bere programazioaren %67a baino gehiago landu dute**, hau da, programatutakoaren bi heren baino gehiago.

Horrek esan nahi du:


- Programazioaren betetze maila **oso altua** izan dela, hamar foru departamentuek programatutakoaren bi heren baino gehiago bete dutelako. Bederatzi departamentuk programatutako ekintzen %78a baino gehiago landu dituzte eta, horietako bostek, foru departamentuen erdiak, programatutako ekintzen %92a baino gehiago landu dute.
- Departamentu gehienek artean betetze maila oso **orekatua** izan da. Ez da gertatu departamentu batzuk dena garatu eta beste batzuk oso gutxi garatu dutela, baizik eta, salbuespenen bat kendurik, departamentu guztiek beren programazioaren antzeko ehunekoak landu dituztela.

Ondoren, **departamentu bakoitzaren betetze mailaren grafiko zehatzak** jasotzen dira, lehen esan den moduan, departamentu bakoitzak modu kualitatiboago batean aztertu beharko dituen datu kuantitatiboak laburbilduz.



Bide Azpiegiturak: 16 ekintza landu dira, programatu ziren ekintzen %100a, denak hasi eta bukatuak.


Ikus daitekeenez, programatutako ekintzen betetze maila altuena duten bi departamentuetariko bat da. Bestalde, hasi eta bukatutako ekintzen ehunekoa ere deigarria da, hasitako ekintzen %100a bukatu baitira.



Diputatu Nagusiaren Arloa: 20 ekintza landu dira, programatu ziren ekintzen %80a, ekintzen %64a hasi eta bukatuak eta %16a martxan (hasi eta bukatu gabeak).

Ikus daitekeenez, bere programazioko hamar ekintzetatik zortzi baino gehiago landu dituen zortzi departamentuetako bat da.


Ekonomia 2017ko betetze-maila



Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka: 12 ekintza landu dira, programatu ziren ekintzen %92a, ekintzen %54a hasi eta bukatuak eta %38a martxan (hasi eta bukatu gabeak).

Ikus daitekeenez, bere programazioaren hamar ekintzetatik bederatzi baino gehiago landu dituen bost departamentuetako bat da.


Gizarte politika 2017ko betetze-maila



Gizarte Politika: 18 ekintza landu dira, programatu ziren ekintzen %78a, ekintzen %52a hasi eta bukatuak eta %26a martxan (hasi eta bukatu gabeak).

Ikus daitekeenez, departamentu honek bere programazioaren hiru laurden baino gehiago bete du, programatutako hamar ekintzetatik ia zortzi. Kontuan izan behar da, bere ekintza asko *Aurre! Foru Planekoak* direla eta 2017an betetzen hasi den planen honek konplexutasun, kontu eta jarraitutasun gehiago eskatzen dituzte ekintzak dituela.


Gobernantza 2017ko betetze-maila



Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioa: 32 ekintza landu dira, programatu ziren ekintzen %94a, ekintzen %94a hasi eta bukatuak.


Ikus daitekeenez, bere programazioaren hamar ekintzetatik bederatzi baino gehiago landu dituen bost departamentuetako bat da. Bere kasuan oso aipagarria dena, bera izan zelako 2017rako ekintza kopuru handien programatu zuen bigarren departamentua (34 ekintza).

Ingurumena 2017ko betetze-maila




Ingurumena eta Obra Hidraulikoak: 7 ekintza landu dira, programatu ziren ekintzen %88a, ekintzen %75a hasi eta bukatuak eta %13a martxan (hasi eta bukatu gabeak).

Ikus daitekeenez, programatutako hamar ekintzetatik ia bederatzi landu ditu departamentu honek. Zehazki, programatu zuen ekintza bat soilik utzi du hasi gabe. Ekintza gutxien programatuta zituen departamentuetako bat da, berdintasunerako berriarazko foru planek eragin txikia dutelako bere eskumenen esparruetan.




Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirolak: 19 ekintza landu dira, programatu ziren ekintzen %95a, ekintzen %60a hasi eta bukatuak eta %35a martxan (hasi eta bukatu gabeak).

Ikus daitekeenez, bere programazioaren hamar ekintzetatik bederatzi baino gehiago landu dituen bost departamentuetako bat da. Bestalde, hasi baina bukatu gabe (martxan) geratu diren ekintzen kopurua (7 ekintza) ere azpimarragarria da, programatu ziren ekintzen ia heren bat direlako eta datu honek konplexutasun edo jarraitutasun handiagoko ekintzak direla azaltzen duelako.




Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa: 4 ekintza landu dira, programatu ziren ekintzen %67a, ekintzen %34a hasi eta bukatuak eta %33a martxan (hasi eta bukatu gabeak).

Ikus daitekeenez, bere programazioaren bi heren landu ditu departamentu honek. Zehazki, programatu zituen sei ekintzetatik bi hasi gabe utzi ditu. Ekintza gutxien programatuta zituen departamentuetako bat da, berdintasunerako berriarazko foru planek eragin txikia dutelako bere eskumenen esparruetan.



Ogasuna eta Finantzak: 16 ekintza landu dira, programatu ziren ekintzen %100a, ekintzen %100a hasi eta bukatuak.

Ikus daitekeenez, programatutako ekintzen betetze maila altuena duten bi departamentuetariko bat da. Bestalde, hasi eta bukatutako ekintzen ehunekoa ere deigarria da, hasitako ekintzen %100a bukatu baitira.




Berdintasunerako Organoa: 29 ekintza landu dira, programatu ziren ekintzen %81a, ekintzen %64a hasi eta bukatuak eta %17a martxan (hasi eta bukatu gabeak).

Ikus daitekeenez, bere programazioaren hamar ekintzetatik zortzi baino gehiago landu dituen zortzi departamentuetako bat da, kasu honetan bereziki esanguratsua dena, zeren eta 2017rako ekintza gehien programatu zituen departamentua zen (41 ekintza).

1.4.- ZUZENDARITZEN ARABERAKO BETETZE MAILA


Ondoren, departamentu bakoitzaren zuzendaritzen jarraipen datuen laburpena jasotzen dira.

1.4.1.- Bide Azpiegiturak



- ERREPIDEAK: programatu ziren 8 ekintzetatik **8 ekintza landu dira**, horietatik 8 bukatuak.
- KUDEAKETA ETA PLANGINTZA: programatu ziren 8 ekintzetatik **8 ekintza landu dira**, horietatik 8 bukatuak.

1.4.2.- Diputatu Nagusiaren Arloa




- BIZIKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEAK: programatu ziren 10 ekintzetatik **7 ekintza landu dira**, horietatik 6 bukatuak eta 1 martxan (hasi eta bukatu gabea).
- DIPUTATU NAGUSIAREN KABINETEA: programatu ziren 3 ekintzetatik **2 ekintza landu dira**, horietatik 1 bukatua eta 1 martxan (hasi eta bukatu gabea).




- HIZKUNTZA BERDINTASUNA: programatu ziren 2 ekintzetatik **2 landu** eta bukatu dira.
- KOMUNIKAZIOA: programatu ziren 6 ekintzetatik **6 ekintza landu dira**, horietatik 5 bukatuak eta 1 martxan (hasi eta bukatu gabea).
- KUDEAKETA ESTRATEGIA: programatu ziren 4 ekintzetatik **3 landu dira**, horietatik 2 bukatuak eta 1 martxan (hasi eta bukatu gabea).

1.4.3.- Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka




- BERRIKUNTZA: programatu ziren 4 ekintzetatik **4 ekintza landu** eta bukatu dira.
- EKONOMIA SUSTAPENA: programatu ziren 5 ekintzetatik **4 ekintza landu dira**, horietatik 1 bukatua eta 3 martxan (hasi eta bukatu gabeak).
- LURRALDE OREKA: programatu ziren 2 ekintzetatik **2 ekintza landu dira** eta biak martxan daude (hasi eta bukatu gabeak).
- MENDIAK ETA NATURA: ez zen ekintzarik programatu.
- NEKAZARITZA ETA LANDA GARAPENA: programatu ziren 2 ekintzetatik **2 ekintza landu** eta bukatu dira.

1.4.4.- Gizarte Politika




- ERAKUNDE PUBLIKOAK: programatu ziren 3 ekintzetatik **3 ekintza landu** eta bukatu dira.
- HAUR BABESA ETA GIZARTERATZE: programatu ziren 16 ekintzetatik **11 ekintza landu dira**, horietatik 5 bukatuak eta 6 martxan (hasi eta bukatu gabeak).
- PLANGINTZA, INBERTSIO ETA PRESTAZIOAK: programatu ziren 2 ekintzetatik **2 ekintza landu** eta bukatu dira.
- MENDEKOTASUNA ETA DESGAITASUNA: programatu ziren 2 ekintzetatik **2 ekintza landu** eta bukatu dira.

1.4.5.- Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioa




- ESTRATEGIA DIGITALA: programatu ziren 5 ekintzetatik **5 ekintza landu** eta bukatu dira.
- ARAUBIDE JURIDIKOA ETA FUNTZIO PUBLIKOA: programatu ziren 11 ekintzetatik **10 ekintza landu** eta bukatu dira.
- KANPO HARREMANAK: programatu ziren 5 ekintzetatik **5 ekintza landu** eta bukatu dira.
- MODERNIZAZIOA, ZERBITZUAK Y INFORMAZIO SISTEMAK: programatu ziren 5 ekintzetatik **5 ekintza landu** eta bukatu dira.
- HERRITARREN PARTAIDETZA: programatu ziren 8 ekintzetatik **7 landu** eta bukatu dira.

1.4.6.- Ingurumena eta Obra Hidraulikoak




- INGURUMENA: programatu ziren 4 ekintzetatik **4 ekintza landu dira**, horietatik 3 bukatuak eta 1 martxan (hasi eta bukatu gabea).
- OBRA HIDRAULIKOAK: programatu ziren 4 ekintzetatik **3 ekintza landu eta bukatu dira**.

1.4.7.- Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirolak




- GAZTERIA ETA KIROLAK: programatu ziren 8 ekintzetatik **7 ekintza landu dira**, horietatik 2 bukatuak eta 5 martxan (hasi eta bukatu gabeak).
- KULTURA: programatu ziren 6 ekintzetatik **6 ekintza landu dira**, horietatik 4 bukatuak eta 2 martxan (hasi eta bukatu gabeak).
- GARAPENERAKO LANKIDETZA: programatu ziren 6 ekintzetatik **6 landu** eta bukatu dira.
- TURISMOA: ez ziren ekintzak programatu.

1.4.8.- Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa



- LURRALDE ANTOLAKETA: programatu ziren 2 ekintzetatik **ekintza 1 landu eta bukatu da**.
- MUGIKORTASUNA: programatu ziren 4 ekintzetatik **3 ekintza landu dira**, horietatik 1 bukatua eta 2 martxan (hasi eta bukatu gabeak).

1.4.9.- Ogasuna eta Finantzak




- FINANTZAK ETA AURREKONTUAK: programatu ziren 6 ekintzetatik **6 ekintza landu eta bukatu dira**.
- OGASUNA: programatu ziren 4 ekintzetatik **4 ekintza landu eta bukatu dira**.
- ZERGA ETA FINANTZA POLITIKA: programatu ziren 6 ekintzetatik **6 ekintza landu eta bukatu dira**.

1.5.- PROGRAMATU ETA HASI EZ ZIREN EKINTZEN BALORAZIOA

Datozen urteetan bai programazioa eta bai ekintzen jarraipena hobetzeko, txosten honen atal hau, 2017rako programatu egin ziren eta gero landu edo garatu ez diren ekintzen azterketarekin bukatzeak interes berezia du eta, are gehiago, hori gertatzeko egon diren arrazoiak ezagutzeak.

2017rako programatutako 202 ekintzen betetze-mailaren laburpenean ikus daitekeenez, ekintza guzti horietatik, **21 ekintza geratu dira hasi gabe, hau da, guztien %10a.**



Garatzen hasi gabe geratu diren 21 ekintza horiek modu honetan banatu dira **programazioaren eta jarraipenaren hiru zatitan**:






Ondoko taulak banaketa hori jasotzen du, baina berdintasunerako hiru plan edo zati bakoitzean programatu ziren ekintza kopuruarekin alderatuz.

EKINTZAK	Programatuak	Hasi eta landu direnak	Hasi gabeak	Programatuko ekintzaren %
Aurre!	57	42	14	%25
Kontziliazio Erantzunkidea	17	15	2	%12
Eremu Orokorra	123	116	5	%4
GUZTIRA	197	173	21	%11

Ikus daitekeenez, **Aurre! Foru Planaren programazioa betetzeko (%25a hasi gabe) beste bietan baino zailtasun gehiago egon dira (%12 Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Planean eta %4 Eremu Orokorrean).**

Aurre! Foru Planaren garapenean hasi gabe geratu den ehuneko hori bat dator Aurre! Planaren inplementazioaren lehen urtea izatearekin eta, ziurrekin horregatik, programazioa egiterakoan eduki handiko eta garapen konplexuko hainbat ekintza garatzeko egon zitezkeen zailtasunak ondo ez aurreikustearekin.

Bestalde, lantzen hasi gabe geratu diren **21 ekintza horiek modu honetan banatu dira departamentuka:**





- *Berdintasunerako Organoa*: 7 ekintza hasi gabe, hasi gabeko guztien %33a.
- *Gizarte Politika*: 5 ekintza hasi gabe, hasi gabeko guztien %24a.
- *Diputatu Nagusiaren Arloa*: 5 ekintza hasi gabe, hasi gabeko guztien %24a.
- *Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa*: 2 ekintza hasi gabe, hasi gabeko guztien %10a.
- *Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioa*: ekintza 1 hasi gabe, hasi gabeko %5a.
- *Ingurumena eta Obra Hidraulikoak*: ekintza 1 hasi gabe, hasi gabeko guztien %5a.

Ikus daitekeenez, *Berdintasunerako Organoak*, *Gizarte Politikak* eta *Diputatu Nagusiaren Arloak* hasi ez diren 21 ekintzetatik 17 dituzte, hau da, hasi gabeko guztien %81.

Bestalde, hiru departamentu hauek dira *Aurre! Foru Planaren* ekintza kopururik handiena dituztenak eta, lehen aipatu dugun moduan, foru plan hau da ekintza ehunekorik altuena hasi gabe utzi duena.

1.5.1.- Ekintza hauek hasi gabe uzteko arrazoiak:

Dudarik gabe, hasi gabe geratu diren ekintza kopuru baino haratago, ekintzak lantzen hastea galarazi duten zergatiak ezagutzea da interesantea, bereziki datozen urteetan zergatik horiek saihestu ahal izateko.

Departamentuek programatuta zituzten ekintza hauek ez hasteko eman dituzten arrazoi eta zergatiak, eragin dituzten ekintza kopuru handienetik txikienera, talde edota arrazoi-mota hauetan bildu daitezke.

Ekintzak	Departamentuak-Zuzendaritzak	Programazioak	Zergatia
9	Gizarte Politika-Haurtzaro eta Gizarteratzea (5) Berdintasunerako Organoa (3) Gobernantza-Funtzio Publikoa (1)	Aurre! Foru Plana (9)	2018rako atzeratuak

Ikus daitekeenez, atzeratu diren 9 ekintzak *Aurre! Foru Planekoak* dira eta, lehen esan den moduan, plan honen inplementazioaren lehen urtea izanik, ziurrenik horregatik, programazioa egiterakoan eduki handiko eta garapen konplexuko hainbat ekintza garatzeko egon zitezkeen zailtasunak ondo ez aurreikustearen ondorioa izan daiteke hau.

Ekintzak	Departamentuak-Zuzendaritzak	Programazioak	Zergatia
3	Ingurumena-Obra Hidraulikoak (1) Diputatu Nagusia-Bizikidetza (1) Mugikortasuna-Lurralde Antolaketa (1)	Esparru Orokorra (3)	Ez dagokigu



Ikus daitekeenez, arrazoi honegatik hasi ez diren 3 ekintzak *Eremu Orokorrekoak* dira, programatuta ekintza gehien zituen plana eta ekintza gehien landu dituenak. Hiru ekintzen arrazoia, ekintzaren ardura departamentuari dagokion ala ekintza egokia den ala ez inguruan duten zalantzetan datza, hain zuzen ere, datozen urteetarako argituko beharko diren zalantzak.

Ekintzak	Departamentuak-Zuzendaritzak	Programazioak	Zergatia
3	Diputatu Nagusia-Bizikidetza (2) Mugikortasuna-Mugikortasuna (1)	Aurre! Foru Plana (1) Kontziliaziorako Foru Plana (1) Esparru Orokorra (1)	Kontratu guztiak kontratu txikiak izan dira Ez da halakorik gertatu

Kasu hauetan, egoera batzuk emango zirela aurreikusi zen eta beraientzat ekintza batzuk programatu ziren, baina, nahiz eta teoriarik gertagarriak izan, gero, praktikan, ez dira urtean zehar egoera horiek suertatu.

Ekintzak	Departamentuak-Zuzendaritzak	Programazioak	Zergatia
3	Berdintasunerako Organoa	Aurre! Foru Plana (3)	Beste ekintza batzuk bukatu arte zain

Kasu honetan, aurretik beste ekintza baten garapena behar zuten ekintzak dira eta, ekintza aurrekari horiek, aipatu diren arrazoiengatik, garatu edo bukatu ez direnez, ondoko ekintzak lantzen hasi gabe geratu diren ekintzak dira. Emaizta domino efektuarena da, ekintza batzuk garatu arte ezin direla besteak hasi.

Ekintzak	Departamentuak-Zuzendaritzak	Programazioak	Zergatia
2	Diputatu Nagusia-Estrategia (1) Berdintasunerako Organoa (1)	Aurre! Foru Plana (1) Kontziliaziorako Foru Plana (1)	Formazio falta Zehaztasun falta

Ekintza hauek ez hasteko eman diren arrazoiak prestakuntza faltarekin lotuta daude, programatu diren ekintzen ulermena hobetzeko formazioaren faltarekin eta, ondorioz, programatutako ekintzak modu eraginkorrean garatzeko formazioaren faltarekin.

Ekintzak	Departamentuak-Zuzendaritzak	Programazioak	Zergatia
1	Diputatu Nagusia-Kabinetea (1)	Esparru Orokorra (1)	Ez da zergatia ezagutzen



Kasu honetan, ez da jaso ekintza ez hasteko zergatia.

Jaso diren zergatiak laburbilduz, 2017rako programatu ziren 197 ekintzetatik 21 ekintza hasi gabe utzi dituzten arrazoiak eta, ondorioz, **datozen urteetarako zuzendu eta saihestu beharko liratekeen egoerak**, hauek izango lirateke:

- Zuzendaritzak berak horrela erabakita 2018rako atzeratzea (9 ekintza).
- Ekintza batzuk garatzeko ardura zein zuzendaritzari dagokionari buruzko zalantzak (3 ekintza).
- Ekintza burutzeko aurreikusitako egoera ez ematea (3 ekintza).
- Aurretiko beste ekintza bat burutu arte itxaron behar izatea (3 ekintza).
- Formazio falta (2 ekintza).
- Ez da zergatia ezagutzen (1 ekintza).



2.- 2017KO EKINTZA ESANGURATSUENAK

Bigarren atal honek **jarduera esanguratsuen laburpen kualitatiboa** jasotzen du, jarduera eta ekintza horiek ondoko bi azpiataletan laburbilduz:

2.1.- Foru departamentu guztiei komunak zaizkien ekintzak: adibidez, departamentu guztien kontratu eta diru laguntzetan berdintasunerako klausulak txertatzea eta beraien jarraipena egitea.

2.2.- Berdintasunerako Organoaren berariazko jarduerak: Berdintasunerako Organoaren zuzeneko ekintza propioak, Gipuzkoako gizartean zuzenean eragiten dituenak.

2.1.- DEPARTAMENTUE GUZTIEN JARDUERA KOMUNAK

Foru departamentuen 2017ko ekintza komunak esparru hauetan zentratu dira:

- Foru kontratu eta diru laguntzetan berdintasunerako klausulen txertaketa eta beraien jarraipena, ordura arte egindako analisi lanari eta gai honi buruz departamentu guztion artean prestatzen ari zen gidari jarraipena emanez.
- *Aurre! Emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurkako Foru Planaren eta Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Planaren* inplementazioa.
- Departamentu bakoitzak *Berdintasunerako 2017/18/19 Planifikazioan* inplementatzea dagozkion ekintzen egutegiratzea.
- Foru gestiorako prestatu diren tresna berriak erabiliz, hain zuzen *EBA-Emaitzetara Bideratutako Aurrekontuak* aplikazioa erabiliz, 2018ko berdintasunerako programazioa egitea.

2.1.1.- Foru kontratu eta diru laguntzetan berdintasunerako klausulen txertaketa eta beraien jarraipena egitea:

Foru departamentuek mota honetako klausulen erabilera orokorra eta sistematizatu egiten jarraitu dute 2017 urtean zehar, klausula horien jarraipenari atentzio berezia jarritz. Eta, paraleloki, lan hau errazteko guztion artean prestatzen ari den gidaren prestaketan ere aurrera egin da. Gida hau bukatutzat eman da 2017ko bukaeran eta 2018an argitaratzea espero da.

Illo honetatik, 2017ko ekitaldian **berdintasunerako klausulak txertatu dituzten foru kontratu eta diru laguntza garrantzitsuen artean**, hauek dira departamentuek beraiek azpimarratzen dituzten espedienteak:

- BIDE AZPIEGITURAK departamentuak, berdintasunerako klausulak sistematikoki bere kontratazio guztietan txertatzen dituela aipatu du, nahiz eta ez duen kontratu bat besteen gainetik nabarmendu.



- DIPUTATU NAGUSIAREN ARLOAK, kontratuen artean, “Etorkizuna Eraikiz” egitasmoaren agenda politiko berria dinamizatu eta burutzeko aholkularitza integralaren kontratazioa azpimarratu du.

Eta, diru laguntzen artean, euskararen erabilera sozialaren inguruko diru laguntzen deialdiak.

- GIZARTE POLITIKA departamentuak berdintasunerako klausulak prozedura irekiaz egiten dituen bere kontratazio guztietan txertatzen dituela azpimarratu du.

Diru laguntzen artean, berriz, *Gizarte Ekimena Laguntzeko Planean* txertatutako berdintasunerako klausulak nabarmendu ditu.

- GOBERNANTZA ETA GIZARTEAREKIKO KOMUNIKAZIOA departamentuak, berdintasunerako klausulak txertatu dituzten kontratuen artean, Gipuzkoako Foru Kontrataziorako Erakundearen bidez energia elektrikoaren hornidura kontratatzeako akordio markoa.

- INGURUMENA ETA OBRA HIDRAULIKOAK departamentuak berdintasunerako klausulak sistematikoki bere kontratazio eta diru laguntza guztietan txertatzen dituela aipatu du, nahiz eta ez duen kontratu bat besteen gainetik nabarmendu.

- MUGIKORTASUNA ETA LURRALDE ANTOLAKETA departamentuak, diru laguntzen artean, Gipuzkoan bizikleta garraio moduan erabilera sustatzen dituzten irabazi-asmorik gabeko elkarteei bideratutako diru laguntza programa nabaritu dute.

- OGASUNA ETA FINANTZAK departamentuak “Telefono bidezko informazio eta laguntza zerbitzuak emateko” kontratua eta “Urteko errenta kanpainan, GFA errenta mekanizatuaren bulegoetan laguntza emateko zerbitzuen” kontratua nabaritu ditu.

Eta, diru laguntzen artean, “Fiskalitatea berritzeko ideiak” saria.

Bestalde, erabilitako berdintasunerako klausulen tipologiari buruz, hauek dira departamentuek beraiek nabaritu dituzten **kontratu eta diru laguntzetan txertatutako berdintasunerako klausula esanguratsuenak**:

- BIDE AZPIEGITURAK departamentuak, kontratuetan erabili dituzten berdintasunerako klausulen artean, *Berdintasunerako Plana* izatearen beharra, kontziliazio erantzunkidea sustatzeko neurri zehatzen aplikazioa, sexu jazarpena eta jazarpen sexista prebenitzeko protokoloaren aplikazioa, eta emakumeen kontratazioa egitea baldin eta kontratuko lana egiteko kontratazio berriak egin behar diren eta enpresan emakumeen ordezkapena gizonena baino txikiagoa bada.

- DIPUTATU NAGUSIAREN ARLOAK, prestakuntza fasean, proiektua burutzeko enpresako arduraduna izango denak emakumeen eta gizonen berdintasunean berariazko prestakuntza izatea, gutxienez 150 orduko formazioa frogatu beharko duelarik.

Eta, esleipen fasean, programaren helburuen artean genero berdintasunaren ikuspegia txertatzea eta 10 puntuz baloratzea.

- GIZARTE POLITIKA departamentuak, prestakuntza fasean, enpresak berdintasunerako plana izatearen eskakizuna nabarmendu du.



- INGURUMENA ETA OBRA HIDRAULIKOAK departamentuak, prestakuntza fasean, indarrean dauden foru arauetan jasotzen diren eta emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zer ikusirik duten arrazoiengatik diru laguntza ez jasotzeko debekua ez izateko eskakizuna.

Esleipen fasean, eskaerak ebaluatuko duen mahaiaren osaketan sexu bien ordezkapen orekatua egotea, beti ere %40 baino handiagoa sexu bakoitzarena.

Eta, betetze fasean, genero ikuspegia txertatzea kontratuaren burutzearekin zer ikusirik duten eta egiten diren analisi, txosten eta idatzi guztietan; hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista eta inklusiboa egiten den dokumentazio, argitalpen, publizitate eta materialetan; eta sexu jazarpena eta jazarpen sexista prebenitzeko protokoloaren aplikazioa

- MUGIKORTASUNA ETA LURRALDE ANTOLAKETA departamentuak, prestakuntza fasean, indarrean dauden foru arauetan jasotzen diren eta emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zer ikusirik duten arrazoiengatik diru laguntza ez jasotzeko debekua ez izateko eskakizuna.
- OGASUNA ETA FINANTZAK departamentuak, esleipen fasean, 11/2014 Foru Arauaren 15 artikulua aplikazioa (*emakumeen eta gizonen berdintasunerako esleipen irizpidea*) eta, betetze fasean, foru arau beraren 24 artikulua aplikazioa (*emakumeen eta gizonen berdintasunerako berariazko exekuzio baldintzak*).

2.1.2.- Aurre! Emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurkako Foru Planaren eta Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Planaren implementazioa:

Bi plan hauek, jadanik *Berdintasunerako II Foru Plan*ean jadanik modu orokorrean jasota zeuden bi arlo hauek garatzen dituzte modu berariazko eta zehaztuago batean, indarkeria matxistaren aurkako borroka eta zaintzaren aldeko erantzunkidetasuna eta gizarte antolaketaren garapena. Emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurkako *Aurre! Foru Plana* 2016 onartu zen eta *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Plana* 2017an onartu da. Bi plan hauek martxan jartzeak *Berdintasunerako Organoaren* eta zegozkien foru departamentuen arteko kontraste eta koordinazio bilerak egitea eskatu du.

Txosten honen lehen ataleko jarraipenaren laburpenean jadanik aurreratu den moduan, planak martxan jartzeko egin behar izan diren lehen lan hauek plan bien implementazioko lehen urtean egiteak, bere muga jarri ditu landu ahal izan diren beste ekintza mota eta kopuruan. Hau bereziki nabaria eta garrantzitsua izan da *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Planaren* kasuan, udararen aurretik onartu zelako eta bere ekintzak soilik 2017ko azken zatian garatu ahal izan direlako.



2.1.3.- *Berdintasunerako 2017/18/19 Plangintza edo Planifikazioaren prestaketa:*

2017an eta bereziki *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Plana* onartu zenetik aurrera, 2017/18/19 hiru urtetarako berdintasunerako foru politika guztien planifikazio integrala prestatu zen, plangintza horretan oinarritzko eta funtsezko hiru dokumentu hauek laburbilduz:

- *Aurre! Foru Plana*, emakumeek jasaten duten indarkeriari aurre egiteko.
- *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Plana*.
- *Eremu Orokorra*, non, *Berdintasunerako II Foru Planetik* eratorritako baina aipatutako berariazko bi planetan txertatu ez ziren ekintzak jasotzen diren (esaterako, foru prozedura administratiboekin eta emakumeen ahalduntzearekin zer ikusi duten ekintzak).

Hori egiteko, *Berdintasunerako Organoak* foru departamentu bakoitzeko Zuzendaritza Orokor guztientzako dokumentu pertsonalizatu bana prestatu zuen, non zuzendaritza bakoitzari hiru foru plan hauetan zegozkien ekintza guztiak jasotzen ziren. Eta, zuzendaritzen planifikazioak jaso ondoren, departamentuka bilduz, GFA osoaren *Berdintasunerako 2017-2019 Foru Planifikazioa* osatu zuen.

- 2018rako planifikatutako ekintzak, urte horretako aurrekontuak prestatu zirenean *EBA-Emaitzetara Bideratutako Aurrekontuak* aplikazioan txertatu ziren.
- 2019rako planifikatutako ekintzak berri, 2018an urte horretako aurrekontuak prestatzen direnean *EBA-Emaitzetara Bideratutako Aurrekontuak* aplikazioan txertatuko dira.

Azken paragrafoetan ikus daitekeenez, egin den prozesu osoa foru **kudeaketarako prestatu diren tresna berriekin bat eginez eta erabiliz** burutu da. *Berdintasunerako Organoak* tresna hauen prestaketan lan egin du, emakumeen eta gizonen berdintasunerako planifikazioa aurrekontuen prestaketan txertatuz eta, bide batez, *Kudeaketa Plan Estrategikoarekin* lotuz.

2.2.- BERDINTASUNERAKO ORGANOAREN BERARIAZKO JARDUERAK

Foru Aldundiko *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak* zeregin bikoitza du *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2017-2019 Foru Planifikazioaren* garapenean:

- Alde batetik, *Foru Planifikazio* horren inplementazioa sustatu, koordinatu eta jarraitzeko ardura du. Honek barne-mailan foru departamentu ezberdinekin lan egitea eskatzen du.
- Bestalde, emakumeen eta gizonen berdintasunerako planifikazio horretan jasotzen diren hainbat neurri inplementatzeko arduradun zuzena da, kanpora begira dituen funtzioekin lotuta dauden neurriak direlarik:
 - o Udal-mailako berdintasunerako politikak sustatu.



- Lurraldeko mugimendu feminista eta emakumeen elkarteei laguntza eta babesa eman.
- Genero ezberdinkeriei buruzko gizarteari begirako sentsibilizazioa eta berdintasunaren aldeko lana.
- Indarkeria matxistaren aurkako borroka-politikaren artikulazioa.

Testuinguru honetan, atal honek *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak* garatu dituen jarduera azpimarragarriak jasotzen ditu, emakumeen eta gizonen berdintasunerako indarrean dagoen aipatutako 2017-2019 *Foru Planifikazioko* hainbat neurrien arduraduna den heinean.

2.2.1.- Esparru orokorrak: gobernu ona eta emakumeen ahalduntzea

Jarduera-ildo honetan ondorengo ekimen hauek azpimarratu behar dira:

2.2.1.1.- BERDINTASUNERAKO UDAL-POLITIKEN SUSTAPENA:

a) Berdinbidean programa

10.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerriei eta berdintasunerako politiken garapenerako aholkularitza, formazioa eta laguntza ematera zuzenduta dagoen programa hau garatzen jarraitu da, betiere beren aukera eta mugen baitan.

18 udalerri eta bi mankomunitatek parte hartu dute, eta beraiekin egindako lana bi eduki-eremuen inguruan egituratu da:

- Indarkeriaren prebentzioa gazteekin.
- Emakumeen ahalduntzea eta parte-hartze soziala.

Gainera, prozesua hiru lan-ildo osagarrien inguruan artikulatu da:

- Partaide diren udalerriekin lanerako gune kolektiboa.
- Udalerrri bakoitzeko pertsonal politiko eta teknikoekin lan-saio espezifikokoak eta aholkularitza zuzena.
- Udalerrri bakoitzean gazte eta emakumeekin ekimen zehatzak.

Azkenik, programan parte hartzen duten udaletako idazkariekin formazioaren lehenengo fase bat garatu da, komunak diren administrazio-prozeduretan genero ikuspegia txertatzearen inguruan.

b) Lurraldeko berdintasun teknikariekin lanerako gunea

Lanerako gune kolektiboa da, eta hogeit bat udalerrri parte hartzen ari dira beren berdintasun teknikarien bitartez. Udalerrri hauek berdintasunerako politiken garapenerako alor egonkorra dute, izan ere, berdintasun arloak, planifikazioa, berariazko aurrekontua eta berdintasunean adituak diren langileak dituzte.



2017an burututako lana generoko mainstreaming estrategiaren garapenarekin lotuta egon da, beti ere mainstreaming estrategia hau inplementatzeko gaitasuna hobetzeko prozesuaren testuinguruan eta udalerrietan landutako edukiak modu praktikoan aplikatuz.

c) Diru-laguntzen deialdia

Tokiko berdintasun proiektu estrategikoen garapenerako 2017ko deialdiaren bitartez 17 Udalerriko eta Mankomunitate bateko 32 proiektu diruz lagundu dira.

2.2.1.2.- BERDINTASUNERAKO FORU ARAUA:

2015eko martxoan *2/2015 Foru Araua*, martxoaren 9koa, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa* onartu ondoren, 2016 urtearen bukaeran arau horren edukiaren garapenaren analisi-prozesua martxan jarri zen. Horren ondorioz, 2/2015 Foru Arauaren lehenengo jarraipen-txostena egin da 2017an, 2015 eta 2016 urteei dagokiena.

Foru Arau hau mugarri bat izan da Gipuzkoan berdintasunerako politiken garapenerako, lehenengo aldiz hauek ardazteko tresna juridiko bat baitago. Gainera, arau honekin Gipuzkoa erreferente bihurtzen da EAEn, izan ere, honelako ekimen bat aurrera eramaten duen lehenengo Lurralde Historikoa da.

2.2.1.3.- GIZARTEAREKIN SOLASKIDETZARAKO GUNEA:

GUNEA mugimendu feminista eta emakumeen elkarte mugimenduaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean dagoen solaskidetzarako gunea da. 2014an sortu zen eta horrez geroztik 30 elkarte inguru parte hartzen ari dira.

2017an bere lana alderdi hauetan zentratu zen nagusiki:

- 2016an birdefinitu zen espazio honen funtzionamendu eredua testatu da, proiektu pilutu modura, ondoren behin betiko funtzionamendu eredua definitu ahal izateko.
- Bestalde, gai hauek landu dira:
 - o Indarkeria matxistaren markoan, "Indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeen aitortza, erreparazioa eta beren eskubideen berreskuratzea".
 - o Zaintzaren markoan, "Bizitzaren iraunkortasuna: kontziliazioa, erantzunkidetasuna eta zaintzak".

Bi gai hauek lantzeko, bi lantalde sortu dira eta talde bakoitzak proposamena prestatu eta txosten idatzi batean jaso du.

2018ko hasieran, batetik, bi txosten hauek ezagutzera emango dira eta, bestetik, testatu den funtzionamendu ereduaren balorazioa egingo da.



2.2.1.4.- ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA:

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak emakumeen aurkako indarkeria matxistaren kontrako borroka eta berdintasunaren inguruan egun EAEn dauden erakundeen arteko guneetan aktiboki parte hartu du. Gune hauek Emakundek koordinatzen ditu eta administrazioaren maila guztiak inplikatur daude:

- Emakume eta gizonen berdintasunerako Erakundeen Arteko Batzordea.
- Emakume eta gizonen berdintasunerako Erakundeen Arteko Talde Teknikoa.
- Emakunderen Zuzendaritza Kontseilua.
- Beldur Barik programaren sustapenerako Erakundeen Arteko Batzordea.

Bestalde, *Berdintasun Zuzendaritzak* erakundeen arteko elkarlanerako eremu zabalagoa garatu du, EAEtik haratago. Honela, Europar Batasunaren mailako harremana mantendu da, Europako Genero Institutuarekin (EIGE).

2017an EIGEk Europako Inbertsioko eta Egiturako Fondoetan genero ikuspegia txertatzeko proiektu berria jarri du martxan. Proiektu honen barruan, EIGEk urriaren 25 eta 26an Bonnen antolatu zuen topaketan, Emakunderekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasunerako Organoko eta Ogasun Departamentuko ordezkariak hartu zuten parte, Europar Batasuneko hainbat mailatan egindako esperientziak ezagutzeko. Topaketa horretan ordezkaturik egon diren estatuak hauek izan ziren: Alemania, Austria, Belgika, Finlandia, Frantzia, Irlanda, Portugal, Suedia eta, bestalde, Europako Eskualde eta Udalerrien Batzordea ere.

2.2.1.5.- SARE ETA PRAKTIKA FEMINISTAK:

Jarduketa-ildo honetan mugimendu feminista eta emakumeen mugimendu asoziatiboa nahiz Lurraldeko praktika feministak laguntzeko ekimenak azpimarratu behar dira:

a) Donostiako Emakumeen Etxeko jarduerari laguntza, izan ere, Lurraldean beste ekimen batzuei begira erreferentetzat har daitekeen kogestio eredu bakarra garatzen duen hurbileko zerbitzua da.

b) Berdintasun 54 proiektu estrategikoen garapenerako 34 emakumeen elkarte eta elkarte feministentzako laguntza, 2017ko diru-laguntzen deialdiaren eremuan.

c) Irungo Alardezaleak elkarteari laguntza, alarde parekidea antolatu ahal izateko.



2.2.1.6.- GIZARTEAREN SENTSIBILIZAZIOA:

Genero desberdintasunen inguruan eta berdintasunaren aldeko sentsibilizazio eta konzientziazio hainbat ekimenen antolaketa, bide ezberdinetatik:

- "Berdintasuna Orain" web orrialdearen eguneratzea.
- Martxoak 8aren inguruko sentsibilizazio kanpaina eta world kafea, bereziki kontziliazio erantzunkidean zentratua.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko "#DenokZu #SomosTú" sentsibilizazio kanpaina: hainbat ikastetxeetara bisitaldia kanpainaren zabalpena egiteko; #DenokZu abestia sortu, Goazen taldearen bitartez, eta abestiaren aurkezpenarako ekitaldia.
- Emakumeen aurkako Indarkeriaren aurrean Erantzun Publikoa emateko Gipuzkoako Erakundeen Protokoloaren aurkezpen ekitaldia.

Halaber, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak* gonbidatua izan den topaketa eta gune ezberdinetan parte hartu du. Honen helburua da berdintasun gaietan Foru Aldundiak egiten duen lana gizarteratu eta berdintasun gaietako erronkei loturiko eragile ezberdinekin etengabeko elkarriketa mantentzea.

2.2.2.- Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko I. Foru Plana:

Aurre! Foru Planak indarkeria matxistaren kontra lau esparrutan lan egitea aurreikusten du: ikerketa, prestakuntza, prebentzioa eta sentsibilizazioa eta atentzioa. Ondoren, esparru hauetan izandako jarduera nabarmenak aipatzen dira:

Ikerketa

- 2017an emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko *Think Tank* espazioaren definizioa hasi da. Espazio honek ikerketa lerroen identifikazioa eta emakume biktimen atentzioari buruzko hausnarketa komuna ahalbideratuko du, Bere helburua "kluster" moduko bat bilakatzea izango da.
- Indarkeria matxisten biktimen atentzio esparruan, "Praktika onen bankua" prestatzen hasi da.

Prebentzio eta sentsibilizazioa

- Urte osoan zehar #DenokZu-#SomosTú kanpaina martxan egon da, Azaroaren 25aren inguruan, Emakumeen aurkako indarkeriaren nazioarteko Egunaren inguruan, modu berezian indartu delarik. #DenokZu sentsibilizazio kanpaina hezkuntzaren esparruan fokatu da, 40 ikastetxe baino gehiagori bisitaldia egin zaielarik.
- Emakumeen aurkako Indarkeriaren aurrean Erantzun Publikoa emateko Gipuzkoako Erakundeen Protokoloa burutu da.
- Gazteekin indarkeria matxistaren prebentzioa lantzeko GFAko *Gazteria Zerbitzuaren* eta *Berdintasunerako Organoaren* arteko lan komuna martxan jartzeko lehen urratsak eman dira.



Arreta

- GFAko *Haurren babeserako eta Gizarteratzeko* Zuzendaritza Nagusiaren eta *Berdintasunerako Organoaren* indarkeria matxistari aurre egiteko Batzorde politiko-teknikoaren bi bilera egin dira eta, baita ere, teknikarien arteko beste hiru bilera egin dira, guztiak ere bi zuzendaritzen arteko koordinazioa indartzeko helburuarekin.

Erakundeen arteko lan espazioak

- Maila lokalean garatzen den eta indarkeri matxista gazteekin prebenitzera zuzenduta dagoen "*Beldur Barik*" erakundeen arteko programari ematen zaion laguntza eta sustapenarekin jarraitu da.
- 2017an eta programaren baitan erakunde bakoitzari egokitutako funtzioei dagokienez, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak* horren zabalpena sustatu du *Gazteria Zuzendaritzarekin* batera lanean ari diren eragile eta sareen bidez. Era berean, "*Berdinbidean*" programaren barruan dauden udalerriekin lan egin da.
Guztira Lurralde osoko 101 lan aurkeztu dira, nahiz eta edukietan sakontzen jarraitu beharra dagoela ikusi den. Izan ere, egiten den lanak gazteen bizi-esperientziei lotutako hausnarketaren emaitza izan behar du.
- Azkenik, indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeen arretari lotuta, Emakunderekin egindako lana azpimarratu behar da, NBEk sortu dituen indarkeria jasaten duten neska eta emakumeentzako *arretazko estandarrak* betetzen diren jakiteko.

2.3.3.- Kontziliazio Erantzunkiderako I. Foru Plana:

2017an *Kontziliazio Erantzunkiderako* lurralderako lehen Foru Plana onartu da. Plana lau lan ardatzen inguruan eratu da: ekonomia, hiritartasuna, administrazio publikoa eta, azkenik, ardatz esperimentalago bat (Herri Lab), non aipatutako aurreko hiru lan ardatzak herri batean batera garatu nahi diren.

2017an zehar planean aurreikusitako sentsibilizaziorako ekintza batzuk jada martxan jarri dira. Plan honetan jasotako ekintzen zati garrantzitsu baten garapena 2018rako aurreikusten da.



3.- ERABILITAKO DIRU BALIABIDEAK

Atal honetan emakumeen eta gizonen berdintasunerako foru politiken inplementazioan **2017rako programatutako ekintzak garatzeko departamentu bakoitzak zuzeneko gastuan** egindako esfortzua jasotzen da.

Horretarako, gastu hauek hartu dira kontuan:

- Bakarrik ekintza programatuei zuzendutako diru-partida espezifikoa.
- Izaera orokorragoa duten baina partzialki ekintza programatuak garatzera zuzendu diren diru-partiden zati proportzionala.
- Ez da pertsonal propioaren kostea kontuan hartu, hau da, ez da Foru Aurrekontuaren I Kapitulua kontuan hartu.

Hau da, aurrekontu honek **departamentuetan gastu zuzena eta espezifikoa inplikatu duten garatutako neurriak islatzen ditu soilik**. Esaterako, departamentuen proiektuetarako aholkularitza espezifikoren kontratazioa, berariazko diru-laguntza batzuen deialdia (hala nola, emakumeen berdintasuneko parte hartzea bultzatzera zuzendua), eta abar.

Garrantzitsua da hau argitzea zeren, pertsonalaren kostu propioa jasotzen ez den neurrian, badaude neurri asko beren garapenean gastu ekonomiko zuzenik ez dutenak, zuzenean departamentuetako pertsonalak egiten dituztelako.

Bestalde, **departamentu bakoitzak aurrekontu handiagoa edo txikiagoa erabiltzea** ondoko egoerekin zer ikusi zuzena du:

- Bere ardura diren 2017-2019 Berdintasunerako Planifikazioaren ekintza kopurua.
- Dagozkien ekintzen artean, aurrekontu bereziren bat eskatzen duten kontratazio, komunikazio, formazioa edota antzeko gastua eskatzen duten ekintza kopurua, beti ere berariazko gastua bada berdintasunaren ikuspegitik.
- Kontratazio eta diru laguntzetan txertatutako berdintasunerako klausulek eduki dezaketen eragin ekonomikoa.

Aurreko testuinguru hau kontuan harturik, **2017ko berdintasunerako programazioa garatzeko aurrekontu espezifikoa 5.051.278,14 eurotako** izan da.

2017an erabilitako aurrekontua	5.051.278,14 euro
--------------------------------	-------------------

Beheko datuetan ikus daitekeenez, aurtengo kopurua azken urteotako jarraipen txostenetan jaso diren diru kopuruak baino kopuru handiagoa da; hau da, aurreko urteetan departamentuek eman dituzten datuen batura baino handiagoa.



2017an erabilitako aurrekontua	5.051.278,14 euro
2016an erabilitako aurrekontua	3.040.161,25 euro
2015ean erabilitako aurrekontua	4.221.838,38 euro
2014an erabilitako aurrekontua	4.963.353.75 euro
2013an erabilitako aurrekontua	5.396.229,56 euro

2017ko jarraipenean antzeman den aurrekontu erabiliaren igoera hau **ondoko faktore hauengatik** izan daiteke:

- 2017ko jarraipena foru plan berrien ekintza berriein egin da eta ekintza hauek, nahiz eta 2016 eta 2017 egindako berdintasunerako foru planen berrantolaketa baino lehenagoko ekintzetatik eratorri, ez dira guztiz berdinak eta, ondorioz, ez dute zergatik aurrekontu berbera behar izan eta erabili.
- Orokorrean, departamentu guztiek egindako programazioaren jarraipenean eta eman dituzten datuetan aurten hobekuntza handia egon da, baita ere erabilitako aurrekontuaren atalean. Ondorioz, aurten departamentu guztien datu ekonomiko gehiago jaso ahal izan dira, bereziki *Gizarte Politikako Departamentuarenak*, eta, aurreko urteko datuetan ikas daitekeen moduan, departamentu hau eta *Berdintasunerako Organoa* dira aurrekontu handiena erabiltzen duten bi departamentuak.

3.1.- ERABILITAKO AURREKONTUA FORU DEPARTAMENTUKA

Beheko taulak foru departamentu bakoitzak erabili duen aurrekontua azaltzen du eta, baita ere, erabilitako totalaren ehunekoa.

Ikus daitekeenez, alde handia dago departamentutik departamentura, hirugarren atal honen hasieran jadanik aipatu diren arrazoiengatik:

- Bere ardura diren berdintasunerako hiru foru planen ekintza kopurua.
- Dagozkien ekintzen artean, aurrekontu bereziren bat eskatzen duten kontratazio, inbertsio, komunikazio, formazioa edota antzeko gastua eskatzen duten ekintza kopurua.
- Berdintasunerako klausulak txertaturik eraman dezakeen kontratazio eta diru laguntza kopurua eta, kontratu eta diru laguntzen motaren arabera, klausula horiek eduki dezaketen eragin ekonomikoa.



BERDINTASUNERAKO ERABILITAKO AURREKONTUA DEPARTAMENTUKA	Kopurua eurotan	Erabili den totalarekiko %
<i>BIDE AZPIEGITURAK</i>	-	-
<i>DIPUTATU NAGUSIAREN ARLOA</i>	-	-
<i>EKONOMIA SUSTAPENA, LANDA INGURUNEA ETA LURRALDE OREKA</i>	207.094,29	4,10%
<i>GIZARTE POLITIKA</i>	2.989.817,29	59,19%
<i>GOBERNANTZA ETA GIZARTEAREKIKO KOMUNIKAZIOA</i>	3.360,00	0,07%
<i>INGURUMENA ETA OBRA HIDRAULIKOAK</i>	3.025,10	0,06%
<i>KULTURA, TURISMO, GAZTERIA ETA KIROLAK</i>	133.389,45	2,64%
<i>MUGIKORTASUNA ETA LURRALDE ANTOLAKETA</i>	-	-
<i>OGASUNA ETA FINANTZAK</i>	270.700,72	5,36%
<i>BERDINTASUNERAKO ORGANOAK</i>	1.443.891,29	28,58%
ERABILITAKO AURREKONTUA GUZTIRA	5.051.278,14	100%

Azkenik, beheko taulan azken urtetan erabilitako berdintasunerako aurrekontuaren alderaketa jasotzen da, beti ere urtez urteko departamentuen jarraipenean jaso ahal izan diren aurrekontuen datuen arabera.

2015eko foru departamentuen berrantolaketan bere izena eta egitura mantendu zuten departamentuak jaso dira eta baita ere izena edota egitura aldatu zutenak. Azken hauen kasuetan, departamentuen izen biak jaso dira, izen zaharrak minuskulaz idatziak (2013 et 2014 urteak) eta egungo izenak maiuskulaz idatziak (2015, 2016 eta 2017 urteak).



DEPARTAMENTUAK	2017	2016	2015	2014	2013
BIDE AZPIEGITURAK	-	-			
DIPUTATU NAGUSIAREN ARLOA	-	-			
EKONOMIA SUSTAPENA, LANDA INGURUNEA ETA LURRALDE OREKA	207.094,29	620.000	58.855		
GIZARTE POLITIKA	2.989.817,29	1.320.310	3.171.600	3.193.600	4.224.998
GOBERNANTZA ETA GIZARTEAREKIKO KOMUNIKAZIOA	3.360,00	4.751	10.156		
INGURUMENA ETA OBRA HIDRAULIKOAK	3.025,10	-	5.000		
KULTURA, TURISMO, GAZTERIA ETA KIROLAK	133.389,45	-			
MUGIKORTASUNA ETA LURRALDE ANTOLAKETA	-	-			
OGASUNA ETA FINANTZAK	270.700,72	-	11.000	5.000	
BERDINTASUNERAKO ORGANOA	1.443.891,29	1.095.100	965.226	1.063.866	1.125.481
Foru Administrazioa eta Funtzio Publikoa				14.767	
Kultura, Gazteria eta Kirolak				85.211	2.250
Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismoa				528.600	
Ingurumena eta Lurralde Antolaketa					43.500
Mugikortasuna eta Bide Azpiegiturak				72.308	
ERABILITAKO AURREKONTUA	5.051.278,14	3.040.161	4.221.837	4.963.352	5.396.229



4.- 2017KO BALORAZIOA

2017ko betetze mailaren balorazioa eta azken ondorioen laburpena, lau azpiatal hauetan laburbiltzen dira:

- Programazioaren jarraipenaren balorazioa.
- Programazioaren betetze maila.
- Departamentuek aipatutako ekintza esanguratsuenak.
- Lan talde, bilera eta lan prozesuei buruzko balorazioa, horietan parte hartu duten pertsonen balorazioa.

4.1.- 2017KO PROGRAMAZIOAREN JARRAIPENAREN BALORAZIOA

Lehenik eta behin, departamentuek egin duten 2017ko programazioaren **jarraipenaren hobekuntza orokorra nabarmendu behar da**. Nahiz eta programazioa hiru une eta fase ezberdinetan egin, eta batzuetan gainjartzen ziren eduki ezberdinekin programatu behar izatea, 2017an datu gehiago eta osotuagoak jaso dira ia foru departamentu guztietan.

Dudarik gabe, **Berdintasunerako Organoak zuzendaritza bakoitzari programatuta zituen eta jarraipena egin behar zituen ekintzekin tresna pertsonalizatua** eskaintzeko egin duen ahalegin handiak zer ikusirik du emaitza honekin.

Ondorioz, 2017an programatu ziren 197 ekintzetatik soilik 3 ekintzen jarraipen informazioa ez da jaso.

4.2.- 2017KO PROGRAMAZIOAREN BETETZE MAILA

Betetze maila oso altua izan da. 2017ko programazioaren jarraipenaren laburpena ondoko hau da:

- 2017an emakumeen eta gizonen berdintasunerako 197 ekintza programatu ziren.
- 197 ekintza horietatik, **173 ekintza hasi eta landu dira** (142 bukatuak eta 31 martxan jarraitzen dutenak), hau da, programatutako 197 ekintzen **%88a**.

Indarrean dauden hiru foru planen jarraipenaren laburpena, 2017an egindako **hiru programazioen datuen laburpena ondoko hau da**:

- **Aurre! Foru Plana: 42 ekintza hasi eta landu dira** (21 bukatuak eta 21 martxan jarraitzen dutenak), hau da, programatutako 57 ekintzen **%74a**.



- **Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Plana: 15 ekintza hasi eta landu dira** (14 bukatuak eta 1 martxan jarraitzen duena), hau da, programatutako 17 ekintzen %88a.
- **Eremu Orokorra: 116 ekintza hasi eta landu dira** (107 bukatuak eta 9 martxan jarraitzen dutenak), hau da, programatutako 123 ekintzen %94a.

Jarraipena egin den hamar foru departamentuen arabera **datuen laburpena, ondoko hau da departamentuz departamentu:**

- **Bide Azpiegiturak: 16 ekintza hasi eta landu dira** (16ak bukatuak), hau da, programatutako 16 ekintzen %100a.
- **Diputatu Nagusiaren Arloa: 20 ekintza hasi eta landu dira** (16 bukatuak eta 4 martxan jarraitzen dutenak), hau da, programatutako 25 ekintzen %80a.
- **Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka: 12 ekintza hasi eta landu dira** (7 bukatuak eta 5 martxan jarraitzen dutenak), hau da, programatutako 13 ekintzen %92a.
- **Gizarte Politika: 18 ekintza hasi eta landu dira** (12 bukatuak eta 6 martxan jarraitzen dutenak), hau da, programatutako 23 ekintzen %78a.
- **Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioa: 32 ekintza hasi eta landu dira** (32ak bukatuak), hau da, programatutako 34 ekintzen %94a.
- **Ingurumena eta Obra Hidraulikoak: 7 ekintza hasi eta landu dira** (6 bukatuak eta 1 martxan jarraitzen dutenak), hau da, programatutako 8 ekintzen %88a.
- **Kultura, Turismoa, Gazteria eta Kirolak: 19 ekintza hasi eta landu dira** (12 bukatuak eta 7 martxan jarraitzen dutenak), hau da, programatutako 20 ekintzen %95a.
- **Mugikortasuna eta Lurraldearen Antolaketa: 4 ekintza hasi eta landu dira** (2 bukatuak eta 2 martxan jarraitzen dutenak), hau da, programatutako 6 ekintzen %67a.
- **Ogasuna eta Finantzak: 16 ekintza hasi eta landu dira** (16ak bukatuak), hau da, programatutako 16 ekintzen %100a.
- **Berdintasunerako Organoa: 29 ekintza hasi eta landu dira** (23 bukatuak eta 6 martxan jarraitzen dutenak), hau da, programatutako 36 ekintzen %81a.

Azkenik, 2017rako programatu ziren 197 ekintzetatik **21 ekintza hasi gabe** geratzeko jaso diren zergatiak laburbilduz, **datozen urteetarako zuzendu eta saihestu beharko liratekeen egoerak** identifikatu daitezke:

- Zuzendaritzak berak horrela erabakita 2018rako atzeratzea (9 ekintza).
- Ekintza batzuk garatzeko ardura zein zuzendaritzari dagokionari buruzko zalantzak (3 ekintza).
- Ekintza burutzeko aurreikusitako egoera ez ematea (3 ekintza).



- Aurretiko beste ekintza bat burutu arte itxaron behar izatea (3 ekintza).
- Formazio falta (2 ekintza).
- Ez da zergatia ezagutzen (1 ekintza).

4.3.- DEPARTAMENTUEK AIPATUTAKO EKINTZA ESANGURATSUENAK

Txosten honen 2.1.1 atalean departamentuek azpimarratu dituzten kontratuetan eta diru laguntzetan egin dituzten berdintasunerako klausulen erabilera esanguratsuak jasotzen dira, bai espedientearen garrantziaren ikuspegitik eta bai erabilitako klausula moten garrantzia edota eraginaren ikuspegitik.

Foru departamentu guztiei komunak diren berdintasunerako klausulen erabilera hauetaz gain, zenbait departamentuk beste ekintza hauek ere azpimarratu dituzte **ekintza esanguratsu bezala 2017an**:

- GIZARTE POLITIKA departamentuak *Aurre! Foru Planaren* ekintza batzuk azpimarratu ditu. Indarkeria matxista jasaten duten emakumeei arreta eraginkorra eta ahalengarria bermatzeko foru mailako barne koordinazioa hobetzeko eta indartzeko:
 - o Indarkeria matxistaren kontrako borrokarako foru politika koordinatzeko batzorde politiko-teknikoa martxan jartzea eta bere funtzioak indartzea.
 - o *Haur eta gazteen babeserako Zerbitzuaren* (bereziki SAPI) eta *Indarkeria matxista jasaten duten emakumeen babeserako eta gizarteratzeko Zerbitzuaren* arteko esku-hartze bateratuaren prozeduren indartzea.

Eta Lurralde nahiz EEA mailako erakundeen arteko koordinazioaren indartzeari buruz:

- o “Etxe-eremuko tratu txarreko eta bortizkeria sexualeko emakume biktimen arretaren hobekuntzarako II. Erakunde arteko Akordioa”-ren jarraipena egiteko Emakundek koordinatzen dituen batzordeetan parte hartze aktiboa, bai maila politikoan eta bai maila teknikoan.
 - o “Etxe-eremuko tratu txarreko eta bortizkeria sexualeko emakume biktimen arretaren hobekuntzarako II. Erakunde arteko Akordioa”-ren jarraipena Lurralde mailan egiteko batzorde politiko-teknikoa sortzeko sustapena.
 - o NBEk indarkeria jasaten duten neska eta emakumeentzako emandako irizpideak jarraituz, arretazko estandarrak bateratzeko Emakunderekin egindako lana.
- GOBERNANTZA ETA GIZARTEAREKIKO KOMUNIKAZIOA departamentuak, *Aurre! Foru Planaren* barruan, berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzko formazio ikastaroen antolaketa azpimarratu ditu, bereziki urte batzuen ondoren berriro egin direlako.

Eta, *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Planaren* barruan, telelana sustatzeko plan pilotu bat martxan jarri dela azpimarratu dute, lehendabiziko aldiz jartzen delako martxan FGAn kontziliazio erantzunkiderako hain garrantzitsua izan daitekeen horrelako egitasmo bat.



4.4.- LAN TALDE, BILERA ETA LAN PROZESUEI BURUZKO BALORAZIOA

Ondoren, berdintasunerako foru egituren funtzionamenduari buruz jaso diren adierazpen esanguratsuenak bildu dira:

A) BATZORDE POLITIKOA, zuzendari guztiek osatzen duten batzordea:

- BIDE AZPIEGITURAK departamentuak modu oso positiboan baloratzen ditu bere antolaketa, laneko metodologia eta funtzionamendua, eta, ondorioz, ez du zailtasunik izan,
- MUGIKORTASUNA ETA LURRALDEAREN ANTOLAKETA departamentuak modu positiboan baloratzen ditu bilerak, bertan bilera jarraitzeko emandako materiala eta eduki egokiak. Zailtasun bakar bat nabarmentzen dute: parte hartu behar duten pertsonak kontuan harturik, bilera egunak jartzeko zailtasuna hain zuzen ere.
- OGASUNA ETA FINANTZAK departamentuak, batzordearen funtzionamenduan ez dela inongo zailtasunik egon aipatu du.

B) AZPIBATZORDE POLITIKOA, departamentu bakoitzeko zuzendari koordinatzaileek osatzen duten azpibatzaordea:

- BIDE AZPIEGITURAK departamentuak modu oso positiboan baloratzen ditu bere antolaketa, laneko metodologia eta funtzionamendua, eta, ondorioz, ez du zailtasunik izan.
- GOBERNANTZA ETA GIZARTEAREKIKO KOMUNIKAZIOA departamentuak bere departamentuko zuzendaritzen arteko komunikazioa egokitzen jo du, departamentuen arteko bileren aurretik beraien bilerak antolatu dituztelarik.
- MUGIKORTASUNA ETA LURRALDEAREN ANTOLAKETA departamentuak bilerak modu positiboan baloratzen ditu eta ondo landuta egon direla esan du, bertan emandako materiala azpimarratuz.
- OGASUNA ETA FINANTZAK departamentuak, azpibatzaordearen funtzionamenduan ez dela inongo zailtasunik egon aipatu du.

C) DEPARTAMENTU ARTEKO TALDE TEKNIKOA, departamentu guztietako idazkari teknikoek osatzen duten talde teknikoa:

- BIDE AZPIEGITURAK departamentuak, teoriarik bere antolaketa eta laneko metodologia egokiak izan arren, praktikan bere funtzionamendua zaila egiten dela adierazi du, departamentuetako idazkari teknikoek duten gehiegizko lanarengatik eta, horren ondorioz, maiz beren bertaratzea eta funtzioak idazkaritza teknikoko beste langile batzuegan uzten dituztelarik.



Edukien aldetik, zailtasunak aipatzen dituzte departamentuaren funtzioak eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako ikuspegia elkarrekin uztartzeko.

- GIZARTE POLITIKA departamentuak modu positiboan baloratzen ditu bere antolaketa, laneko metodologia, funtzionamendua eta lan edukiak.
- GOBERNANTZA ETA GIZARTEAREKIKO KOMUNIKAZIOA departamentuak bileren luzera laburtu eta datuen transmisioa hobetu dela, orain askoz errazago delarik, baloratu du.
- MUGIKORTASUNA ETA LURRALDEAREN ANTOLAKETA departamentuak, bilerak lana egiteko modu egokian egiten direla baloratu du.
- OGASUNA ETA FINANTZAK departamentuak, bere funtzionamenduan ez dela inongo zailtasunik egon aipatu du.

D) DEPARTAMENTU BARRUKO TALDEA, departamentuko zuzendari koordinatzailea, idazkari teknikoa eta zerbitzuburuak osatzen duten lan taldea:

- BIDE AZPIEGITURAK departamentuak, soilik bi zuzendaritza direnez, talde hau ez dela formalki eta aldiro biltzen aipatu du, baizik eta modu informal eta motzean sortzen diren beharren arabera: berdintasunerako urteko programazioa egiteko edota bere jarraipena egiteko, departamentuen arteko bilerak prestatzeko edota eskatutako datu eta estatistikak prestatzeko...
- DIPUTATU NAGUSIAREN ARLOAK berariazko talde hau ez dagoela azaldu du, eta bere gai eta funtzioetarako ohiko zerbitzuburuak bilerak erabiltzen direla.
- GIZARTE POLITIKA departamentuak talde hau ez dela 2017an bildu aipatu du.

Bai bildu da, ordea, indarkeria matxistaren kontrako foru politikak koordinatzeko batzorde politiko-teknikoa, batzorde hau *Hautzaro eta Gizarteratzeko Zuzendariak* eta *Indarkeria Matxista jasaten duten Emakume Biktimen Babeserako Zerbitzuburuak* osatzen dutelarik.

- GOBERNANTZA ETA GIZARTEAREKIKO KOMUNIKAZIOA departamentuak, koordinaziorako zailtasun batzuk jarraitu arren, departamentu barruko informazioaren transmisio eta koordinazioa hobetzeko zenbait pausu eman direla.
- MUGIKORTASUNA ETA LURRALDEAREN ANTOLAKETA departamentuak, parte-hartzaile guztien aldetik balorazio positiboa izan duen barne berrikusketa bat egin dela azaldu du, dokumentazio eta helburuak komunean jartzeko.
- OGASUNA ETA FINANTZAK departamentuak, bere funtzionamenduan ez dela inongo zailtasunik egon aipatu du.

E) 2018rako IRADOKIZUNAK ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK:

- BIDE AZPIEGITURAK eta DIPUTATU NAGUSIAREN ARLOA bat datoz oraingo berdintasunerako foru egiturak 2018an martxan jarriko diren koordinazio orokorreko foru



egitura berrietara moldatzeko beharra azpimarratzerakoan, bai departamentu barrukoak eta bai departamentu artekoak.

- GIZARTE POLITIKA departamentuak departamentu barruko lan taldea osatu eta martxan jartzeko beharra aipatu du.

Era berean, Indarkeria matxistaren kontrako foru politikak koordinatzeko batzorde politiko-teknikoa bultzatzea oso garrantzitsutzat jo du, horretarako eginbehar zehatzak planifikatu eta gizarte arretako bigarren zerbitzuak DC 185/2015 asmora lotzea proposatu duelarik.

- GOBERNANTZA ETA GIZARTEAREKIKO KOMUNIKAZIOA departamentuak bere departamentu barruko koordinazioa hobetzeko asmoa azaldu du.

Bestalde, kontratu eta diru-laguntzen baldintza-agiri administratiboetan berdintasunerako klausulak modu orokorrean eta berezi gabeen sartzen ari dela uste dute, ondoren benetako kontrol eraginkorra egin gabe. Egokiago ikusten dute, berdintasunerako klausulak soilik generoko eragina eta garrantzia duten espedienteetara mugatzea eta, ondoren, jarritako klausulen betetze mailaren jarraipena hobetzea.

Donostia, 2018-04-18